

**EUSKO JAURLARITZAKO  
ETIKA PUBLIKORAKO  
BATZORDEAREN  
MEMORIA**

**2019-2020**

**SARRERA. AURRETIAZKO OHARPENA 2019 ETA 2020KO MEMORIEI BURUZ**

Eusko Jaurlaritzako EPB-Etika Publikorako Batzordeak 2019 eta 2020 urteetan zehar egindako lana erregistratzea da memoria honen xedea, Gobernu Kontseiluari ezagutzera eman eta ondoren haren zabalkunde publikoa egiteko. Memoria eginda, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJK-Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 puntuan ezarritakoa betetzen da; alegia, EPBri dagokio «Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela egiaztatzeko urteko txostena egitea»; Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio txosten hori, jakinaren gainean egon dadin eta hark ontzat ematen dituen gainerako ondorioak izan ditzan.

Esanda geratu den moduan, testu honek 2019 eta 2020 urteei dagozkien memoriak azaltzen ditu. Bi urteak testu bakarrean bateratzearen zergatia da Etika Publikorako Batzordean ez dela Erabakirik hartu 2020an. Beraz, iruditzen zaigu ez duela zentzurik urte horretarako beren-beregi memoria bat lantzeak; hala, horri buruzko aipamenak testu honetan bertan sartuko ditugu, eta, ondorioz, 2019ko zein 2020ko memorien edukiak hartuko ditu barnean.

**ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN OSAERARI BURUZKO BERRITASUNAK**

2019an ez zen aldaketarik izan EPBren osieran. Beraz, aurreko urteetako pertsona berberak jarraitu dute batzordekide, hots, aurreko ekitaldietako memorietan aipatu genituenak.

- **Presidente:** Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua)

- **Batzordekidea:** Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)
- **Batzordekidea:** Elisa Pérez Vera
- **Batzordekidea:** Txetxu Ausín Díez
- **Idazkaria:** Maite Iruretagoiena Iburguren (IVAPeko zuzendaria)

Bestalde, 2020ko hauteskunde autonomikoen ondorengo gobernu-aldaketak EPBren osaera berri bat ekarri zuen berekin, batzordekide diren kargu publikodunei dagokienez:

- **Presidente:** Olatz Garamendi Landa (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua 2020ko irailaren 8tik aurrera)
- **Batzordekidea:** José María Armentia Macazaga (Funtzio Publikoko sailburuordea 2020ko urriaren 10etik aurrera)
- **Batzordekidea:** Elisa Pérez Vera
- **Batzordekidea:** Txetxu Ausín Díez
- **Idazkaria:** Alberto Saiz Garitaonandia (Kabinete eta Komunikazioko Zuzendaria, EPBren idazkari izendatua 2020ko abenduaren 22an)

Indarrean dagoen Kode Etikoaren eta Jokabide Kodearen testuak ez du aldaketarik izan 2019an eta 2020an.

## MEMORIAK AINTZAT HARTZEN DUEN ALDIAN AZTERTU ETA EBATZITAKO GAIAK

2019an, EPBk 7 erabaki hartu zituen, eta 2020an ez zen erabakirik izan. 2019an hartutako zazpi erabakietatik, bat, kargu publikodun batek egindako kontsultari erantzuteko zen; bost, salaketen ondorio; eta zazpigarrena kexa bat. Beraz, kontsulta bakar bati erantzun zitzaion, eta bost salaketen eta kexa baten gainean erabaki behar izan zen; alde handia dago 2018arekin, orduan EPBk kontsultak besterik ez baitzituen jaso, eta salaketa bat bera ere ez.

Grafikoki adierazita, eman berri dugun informazioa honako taula honetan laburbil daiteke:

Kasuaren sorburua	Kasu kopurua
Salaketa edo kexa	6
Kontsulta	1
Guztira	7

EPBk 2019an hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak ondorengo hauek dira:

### a) EBPren aplikazioaren denbora-esparrua

EPBn errepikatzen den gaietako bat da aplikatzeko denbora-esparrua, 2017ko memorian jada arreta berezia eskaini geniona.

Hain zuzen ere, bere garaian adierazten genuen moduan, sektore publiko autonomikoan zerbitzuak ematen dituzten kargu publikodunen jarduketarako jarraibide etikoa da kodea; eta, batez ere, erakundeak herritarren aurrean duen irudia babestera bideratuta dago. Hortaz, ukaezina da haren eraginak, printzipioz, mugatu egin behar direla hartzaileek ofizialki beren erantzukizun publikoak betetzen dituzten aldira, horiei lotzen baitzaie kodearen beraren jokabide-eredu etikoa. Horrenbestez, printzipioz, ezin da proiektatu izendatu aurretik kargu publikodunak eduki ahal izan duen jarduerara, eta ezin da hedatu, ezta ere, kargu publikoa utzi ondorengo garaira.

Gogoeta hori dela eta, EPB honek doktrinatzat finkatu du EJKk indar loteslea duela 2. puntuan zehaztutako kargu publikodunentzat soilik –hau da, kargu publikodunen katalogo gaurkotuan sartutakoentzat–, behin kargu publiko horiek legez kasu bakoitzerako ezarritako prozeduraren arabera izendatu direnean eta horiek kodearekiko atxikipena formalizatu dutenean.

Arestian azaldu dugun arau horren salbuespena da 15.d) apartatuan jasota datorrena, hark xedatzen baitu kargu publikodunak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan ikertua izanez gero, karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz edota izendapena baino lehenagoko «garrantzi publiko berezia» duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaiola EPBri, «kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan».

4/2019 auzian, EPBk bere iritzia azaldu behar izan zuen 2005 eta 2012 bitartean gertatutako egintza batzuen inguruan, gerora kargudun izendatu baten aurka aurkeztutako salaketaren harira. Hortaz, arestian azaldu ditugun arrazoibideetatik abiatuz, EPB honek ebatzi zuen salaketa aintzat ez hartzea, ez soilik egintzak gertatu ziren unean aipatu kargu publikodunak halako kargurik ez zuelako, baizik eta garai haietan EJK bera onartu gabe zegoelako –gogoan izan dezagun 2013ko maiatzaren 28ko Gobernu Kontseiluak onetsi zuela hura–. Abiapuntutzat hartzen den premisa da aipatu karguduna ez dagoela ezein prozedura penal edo administratibotan

sartuta gertaera horiengatik; eta hauek, bestalde, ezingo lirateke «garrantzi berezikotzat» hartu, EJK salbuespenez haren aplikazio naturaleko esparrutik kanpo aplikatzeari dagokionez, aipatu izendapena baino lehenagoko une batera.

6/2019 auzian ere, EPBk aztergai izan zituen kargudunak kargua eskuratu aurretik gertatutako egitateengatik aurkeztutako salaketa batzuk. Berez, salatutako gertaerak 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteei buruzkoak ziren, alegia, salaketa-idazkietan adierazitako egitateen ustezko egilea kargudun izendatu baino lehenagokoak.

Egin beharreko egiaztapenak eginda, EPBk ebatzi zuen, baiki, ezin zitzaiola ezer egotzi auzitan zen kargudunari inolako esku-hartzerik izan ez zuen egintza batzuen inguruan. Edonola ere, iruditzen zaio horrek ez duela kentzen haren ondorengo jokabidea aztergai izatea, izendatu eta gerokoa; hots, salatutako egitateekin loturiko gora jotzeko errekurtsio batzuen gaineko informazioa ematea. Kasu horretan, jakin nahi da jakinaren gainean eta nahita legez kanpo jardun duen. Azterketatik ondorioztatu zen ez zela urratu EJK, «salatzaileek auzitan jarritako administrazio-jarduketaren legezkotasuna hirutan defendatu baitzuen sailak», aurkeztu zitzaizkion errekurtsioei emandako erantzun arrazoitu eta funtsatuen bitartez. Gainera, «aipatu arrazoi zuzentasun eta berme juridikoarekin ados egon gabe ere, ezin daiteke esan argudiorik ez dagoenik edo ez dagoela argudiook inondik ere defendatzerik. Hala balitz, orduan ondorioztatu genezake, baiki, EJK urratu dela».

## **b) EJKren aplikazio-eremu subjektiboari buruzko kontuan hartzekoak**

Lehenagoko memorietan jada aipatzen genuen bezala, 2019an EPBk erantzuna eman behar izan die hainbat salaketari, eta horietan, salatutako egitateen egileak, azken batean, EJKren aplikazio-eremu subjektibotik daudela ebatzi da.

Gogora ekarri behar da, 1/2017 Erabakiaz geroztik, argi dagoela EAEko sektore publiko autonomikoko kargudun publikoei soilik aplikatzen zaiela EJK, alegia, 1/2014 Legearen, ekainaren 26koaren, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzekoaren (KPJKIGL), aplikazio-eremuaren barnean daudenei.

Premisa horretatik abiatuz, 1/2019 Erabakian aztertu eta ebatzi zen auzian, aztergai ziren egitateen egilea karguduna zen, dekretu bidez izendatuta eta EHAAn argitaratutakoaren arabera, baina Estatuko administrazio orokorraren egituran txertatutako kargua zuen. Izan ere, egintza autonomiko baten bidez izendatua izan arren, erakunde publikoaren tipologia eta konfigurazioa kontuan hartuta, Sustapen Ministerioaren mende zegoen. Berez, aipatu kargua ez dago jasota KPJKIGLren 4. artikuluan zehaztutako kargu publikodunen katalogo eguneratuan; eta, katalogo horrek izaera eratzailea duenez –eta, beraz, kargu publikodunak katalogo horretan agertu behar duenez legea aplikagarria izan dakion (KPJKIGLren 4.2 artikulua)–, hizpide dugun kargudunak ez zuen EJK izenpetu behar izan, lehen aipatu ditugun esparru autonomikoko gainerako kargudunek ez bezala; eta, horrenbestez, EPBren aburuz, ez zegokion EJK aplikatzea; horregatik ez zen onartu haren aurka jarritako salaketa.

EJKren aplikazio-eremu subjektiboa izan zen aztergai nagusia 2/2019 Erabakian ere; garapen profesionalaren maila aitortzeko prozesu batean, salatzaileak zioenez, haren zuzeneko nagusiak, enplegatu publikoa bera, ustez ez zuen objektibotasun-irizpide zorrotzekin kalifikatu salatzailea, eta horrek kalte egin zion nabarmen, ezin izan baitzuen lortu eskatutako maila.

EPBk berriro aipatzen du erabakian EJKren aplikagarritasun-eremuari buruz darabilen doktrina; hots, KPJKIGLren 4. artikuluko katalogoan agertzen diren kargu publikodunei bakarrik aplikatzen zaie. Horrek, lehenik eta behin, kanpoan uzten ditu katalogo horretan jasota ez dauden langile funtzionarioak, estatutupekoak zein lan-kontratudunak; beraz, salaketan aipatzen den pertsona ez denez mota horietako langilea, ez da onartu salaketa. EPBk gogorarazten du, gainera, administrazioaren pekoek –eta,

hein horretan, administrazioaren aurreko prozeduretan sartuta dauden enplegatu publikoek– eskubide osoa dutela beraiei eragin diezaieketen erabakiak funtsatzeko erabili ahal izan den dokumentazioa eskuratzeko, hura ezagutu eta legozkiekeen errekurtsioak ezartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan, eskubide hori irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortutako Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak bermatzen du.

Era berean, 5/2019 Erabakia ere EPBren aplikazio pertsonalari buruzkoa izan zen. Kasu horretan, EPBren aurrean aurkeztutako idazkian, udal batek etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kudeaketarekin loturiko egitate batzuek salatzen ziren, saltzailearen arabera, ez zutelako betetzen «gure agintarien kode etikoa, kasu honetan, Udalarena» (egitateak ustez gertatu zirena).

Doktrina errepikatua gogora ekarri ondoren, EPBk azaldu zuen salaketa «Eusko Jaurlaritzak izendatu ez dituen arduradun publikoen aurkakoa zela: toki-administrazio bateko hautetsiak edo haiek izendatutako konfiantzazko pertsonak, eta horiek ez dutela inolako loturarik Euskadiko sektore publiko autonomikoarekin». Datu horrekin, ezinbestean ezetsi behar da salaketa, «EPB honen jarduketa-esparru subjektibotik harago doalako». Halaz eta guztiz ere, Batzordeak gogorarazten du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 35. artikuluan, beren-beregi aurreikusten duela Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek jokabide-kodeak onets ditzaketela tokian tokiko hautetsientzat, eta haiei atxiki ahalko zaizkiela udal-mailako «goi-kargudunak eta zuzendaritzakideak»; beraz, salatzaileari egin beharreko egiaztapenak egin ditzala iradokitzen zaio, udal horrek jokabide-koderen bat onartu duen jakiteko; hala bada, salaketa udal-erakunde horretara bideratu behar du.



**c) Izapidetan diren ikerketa-eginbideetan ikertu gisa fiskaltzaren aurrean deklaratzera deitutako kargu publikodun bat dela eta**

Ikertu gisa auzitegietan deklaratzera deitutako kargu publikodunen kasua askotan aztertu du EPBk, eta aurreko urtetako memorieta landu da gai hori dagoeneko.

Baiki, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko memorieta izan genuen aukera auzitegietan ikertu gisa deklaratzera deitutako kargudunei buruz EPB honek darabilen duen doktrina azaltzeko. Errepikakorrak izateko asmorik gabe, azaltzen genuen EPBren arau-erreferentzia, alor horretan, Etika eta Jokabide Kodearen 15.d) apartatua zela. Jakina denez, ondorengo hau xedatzen du: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta haren sektore publikoko kargu publikodunak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan. Prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunek ez dutela erantzukizunik, errehabilitazio publikoari ekingo zaio. Horrenbestez, kargua kendu baldin bazitzaion, berriro emango zaio, edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da».

Aurreko memorieta jada azaldutako gaia bada ere, komenigarria iruditzen zaigu errepikatzea kargudun ikertuen inguruan EPBk aztertu dituen kasuetako ezeinek ez duela ekarri ahozko epaiketa abian jartzea legokiokeen auzibide penalean. Hain zuzen ere, EPBren aurrean kontsulta egitea ekarri zuten auziak, edo instrukzio-aldian zeuden oraindik, edo burututa, hainbatetan, auziaren artxibatze librea edo behin-behinekoa ebazten zuten auto judizialekin, auziek ez zutelako betetzen legokiokeen zigor-tipoan sartzeko bete beharreko eskakizunik eta ez zutelako horretarako adina garrantzirik. Hein horretan, gogorarazi behar dugu ahozko epaiketa abian jartzea izan ohi dela une prozesal egokiena, EPBren iritzian, eredugarritasun publikoaren betekizunak herritarren eskubide eta

bermeen derrigorrezko errespetuarekin bateratzeko, eta, horrelakorik gertatuko balitz, gomendagarria litzatekeela kargu publikoduna kargugabetzea Eusko Jaurlaritzaren erakunde-irudia babesteko.

3/2019 Auzian EPB osagai berri batekin egin zuen topo, hain zuzen ere ikertu gisa deklaratzeko deia ez zetorrelako instrukzio-auzitegi batetik, baizik fiskaltzak abian jarritako ikerketa eginbide batzuetatik.

Aurretiazko osagaien inguruan, EPBk honakoa ebatzi zuen: «Zalantzazkoa bada ere fiskaltzak sustatutako ikerketa bat (eta, beraz, dagokion instrukzio-epaitegiaren esku-hartzearen aurrekoa) prozesu penal baten barruan kokatzea, esan liteke analogia bat (arrazoi-antzekotasuna) dagoela eredugarritasun-printzipioan oinarrituta, EJKren 15. apartatuaren 5. puntuak kargu publikodunei ezartzen dien obligazioa, EPB honi “kontsulta egitekoa”, prozedura penal baten esparruan ikertu gisa dei egiten zaien kasu honetara hedatzeko».

Gainerakoan, auzitegietan ikertu gisa deklaratzera joateko deitzen dituzten kargu publikodunei buruzko doktrina *mutatis mutandi* zeharraldatu zuen EPBk errealitate honetara, egingarria dena prozesalki, eta, Prozedura Kriminalaren Lege berri bat izapidetu eta onesten bada, barnean hartuta «fiskal-instrukzioa» deitua gaur egun baino hautabide hedatuago moduan, litekeena da etorkizunean hori hautabide orokor gisa sendotzea, eta, beraz, horrek ordezkatu egingo luke auzitegian ikertuaren figura, orain arte zigor-auzibideko legerian eta EPB arduratu den espedienteetan presente egon dena.

3/2019 Erabakian aztergai zen gai partikularrean nabarmendu zenaren arabera, fiskaltzak sustatzen zituen ikerketa-eginbideak, deklaratzeko deiaren kausa zirenak, oraindik «urrun zeudela ahozko epaiketa abiaraztetik, eta hori zela finkatu genuen mugarri prozesala... Une horretatik aurrera daude indarrean eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak, eta, hori dela eta, kargudun publikoen

kautelazko kargugabetzera jotzea komeni da, atxikita dauden erakundearen irudia babesteko». Halaber, azpimarratzen da ikerketa-eginbideak abiarazi dituen kereila ez dela fiskaltzak aurkeztua, ez beste agintaritza publiko batek aurkeztua, eta, ondorioz, komeni dela zuhurtziaz jokatzea eta irizpide orokorrari jarraitzea: «Eredugarritasunetik eratorritako betekizun profilaktikoak ahozko epaiketaren irekierari lotzea».

**d) Kargu publikodunaren esparru profesionalarekin lotura duten bizitza pertsonaleko eta familia-bizitzako egitateak. Inpartzialtasun, objektibotasun, zintzotasun eta interes-gabetasun objektiboaren printzipioak.**

7/2019 auzian, EPBk «kexa bat» izan zuen aztgergai. Hezkuntza Saileko kargu publikodun baten aurka aurkeztu zen, haren semeak ikasten zuen zentroko kide jakin batzuekin izandako harremanak zirela eta; semea une haietan bizitzen ari zen egoera partikular batekin lotura omen zuten.

EPBk egiaztatu zuen biziki sentibera zen egoera bat zuela sorburu aipatu gaiak; kargudunaren semeak gaixotasun bat izan zuen, eta ezin izan zen eskolara joan horregatik,. Errendimendu akademikoari eragin zion horrek, eta kudeatzeko oso zaila zen egoera bat sortu zen. Abiapuntu horrekin, adierazi zen «EAEko sektore publikoko kargu publiko batera iristean arau etiko bereziki zorrotzak bete behar direla; baina horrek ez dakarrela kargu hori lortzen dutenak herritar gisa ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideez eta askatasunez gabetzea, ez eta eskubide eta askatasun horiei kalte egitea ere». Ildo horretan, aipatu kargudun horri ez zitzaion kendu «bere semearen interesa zaintzeko eskubidea –eta hein batean, betebeharra–, eta, behar izanez gero, legearen barruan, semea matrikulatuta zegoen ikastetxeko arduradunen aurrean, bai eta Hezkuntza Administrazioaren aurrean ere, egoki zeritzen ekinbideak abiatzekoa».

Hori esanda, EPBren aztergai hartu zuen aipatu kargudunak zer-nola egin zituen aita-lan pribatuak bere semea ikasten ari zen zentroko arduradunen

aurrean, eta jarduteko modu hori, bere kasuan, etikoki bidegabea izan ote zen; izan ere, EPBren betekizuna da kargu publikodunen jarduera aztertzea, EJK aplikatzearen ikuspuntu etikotik. Ildo horretan, hizpidera ekar litezke inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioak (EJKren 5.2.4 apartatua) eta zintzotasunarena eta interes-gabetasun objektiboarena (EJKren 5.2.7 apartatua), aztergai ziren egintzek nagusiki ukitu zitzaizkien diren heinean. Izan ere, aurkeztutako kexaren arabera, ondoriozta zitekeen kargu publikodunak bere karguaz baliatzeko asmoa zuela «Administrazio Publikoko plantillako langileak, haiei presioa eginez, interesdunari onura pertsonala edo familiarra ekarriko lioketen erabakiak hartzera behartzeko».

Azaldu dugun ikuspegi horretatik aztertu zen ekarritako dokumentazio ugaria, batik bat kargudunaren eta haren semea ikasketak egiten ari zen zentroko arduradunen arteko hartu-emanaren mezu elektronikoak. Eta, aintzat hartu arren «salaketaren ituan zegoena kargu publiko baten titularra izatea (...) haren semearen egoera akademikoaz izandako solasaldi askotan edo guztietan esan gabeko kontua zela, eta solaskideengan asaldura-sentipen subjektiboa, baita beldurra ere, sortu zezakeela, kexaren idazkiak aipatzen duen eran», ez zen arrazoirik ikusi ebazteko –eta are gutxiago oraindik ziurtzat jotzeko– salaketaren ituan zegoenak erabilitako esamoldeek etikoki bidezkoa litzatekeenaren muga gainditu zutenik; hain zuzen ere, aipatu mezu gehienetan tonu gozoa eta adeitsua erabiltzen zuten, eta tonuaren irmotasuna gehiago nabarmentzen zen bakanetan, «inoiz ere ez zien errespeturik galdu solaskideei, eta inoiz ere ez zuten erabili kargu publikoaren erabilera bidegabea egiten ari zela pentsatzeko moduko esamolderik, onura pertsonal edo familiarra modu bidegabean lortzeko presioen erakusle zatekeenik».

## PRESTAKUNTZA- ETA ZABALKUNDE-JARDUERAK

Eredugarritasunaren eta etika publikoaren esparruan, beren-beregi zabalkundearekin eta prestakuntzarekin zerikusia duten zenbait jarduketa lantzeari ekin zitzaion 2014 hartan abian jarritako ildoari eutsiz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak mintegi bat antolatu zuen 2019ko abenduaren 4an, Juli Ponce Solé, Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbideko doktore eta Administrazio Zuzenbideko katedradunarekin; «Gobernu on baten erronka eta Administrazio on baterako eskubidea: paradigma-aldaketa» hitzaldi interesgarria eskaini zuen, eta iritzi-trukerako aukera egon zen ondoren.

Bestalde, 2020ko otsailaren 10ean, «Public sector integrity: GRECO standards» jardunaldia egin zen, Etika eta Jokabide Kodeari atxikitako pertsonen zuzendutako bederatzigarren topaketa beretuta daukatenezat bederatzigarren lan-topaketa, beste behin ere Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatuta. Jardunaldi horretan parte hartu zuten Gianluca Esposito, Europako Kontseiluko Delituaren Aurkako Sailaren buru eta GRECO-Ustelkeriaren aurkako Estatu Taldearen idazkari exekutiboak; eta Drago Kos, nazioarteko merkataritza-transakzioetako eroskeriari buruzko ELGAko lantaldeko buruak.

## ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

EJKren 16.3 puntuak ahalmena ematen dio EPBri «Etika eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatu, eta Gobernu Kontseiluari igortzeko, horrek kontuan har ditzan».

2019ari dagozkion auziak aztertu ondoren, komenigarria iruditzen zaigu honako ondorio hau azaltzea, aldi berean, aldaketa-gomendio izan daitekeena, eta errespetu osoz Gobernu Kontseiluari helarazten diogu, azter dezan, eta, bere kasuan, hura abian jartzeko beharrezkoak diren neurriak onar ditzan:

3/2019 Erabakian, EJKra atxiki diren kargu publikodunei EJKren 15. apartatuko 5. puntuan ezartzen zaien kontsulta egiteko betebeharra, EPBk fiskaltzak ikertu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodunetara zabaldu zuen.

Administrazio autonomikoko kargu publikodunak atxikitzen diren EJKren testuan ez da espresuki azaltzen aipatu egoera, eta kontsulta-betekizuna ikertuaren zitazioa instantzia judizialeatik datorren kasurako soilik ezartzen du. Beraz, aldatzea aholkatzen dugu, fiskaltzaren balizko zitazioa ere aipatuta gera dadin; horrenbestez, ez da gaizki-ulerturik sortuko etorkizunean egoera horretan egon daitezkeen kargu publikodunen artean.